# FLYSCHAREN IBILBIDEA
# LA RUTA DEL FLYSCH




**FITXA TEKNIKOA /FICHA TÉCNICA:**

- Iraupena / Duración: 4 h.
- Luzera / Longitud: 14 km.
- Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-Media
- Desnibela / Desnivel: 183 m.

PR-Gi 5001 SAKONETA
SL-Gi 5001 ALGORRI
SL-Gi 5002 ELORRIAGA

GR 121- TALAIA

**IBILBIDEAREN SEINALEZTAPENA**
**SEÑALIZACIÓN DEL RECORRIDO**

| Norabide zuzena<br>Continuidad del recorrido | Norabide aldaketa<br>Cambio de dirección | Norabide okerra<br>Dirección equivocada |
|---|---|---|



**GR-121 ibilbideak** Gipuzkoa osoari bira ematen dio. Deba eta Zumaia arteko etapa ibilbidearen zatirik polit eta ikusgarrienetakoa da, biotopo babestua izendatua, egun Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkearen barruan dago.

14 kilometroko ibilbide honek Santiago Bidearekin bat egiten du zati batzuetan. Balio geologiko eta natural handiko eremua da eta paisaiaren ikuspegitik ere garrantzia nabarmena du, izan ere, altxor natural paregabea gordetzen du: **flysch**a.

Flyscheko itsaslabarrak osatzen dituzten estraktuak sedimentuen eta itsasoko bizidunen oskol txikien dekantazioz eratu ziren Iberiar Penintsula eta Europako kontinentea bereizten zituen itsaso sakonaren hondoan. Geruza horiek horizontalean eratu ziren eta gero tolestu eta altxatu egin ziren Pirinioen talkaren ondorioz. Nolabait esateko, historia liburu erraldoi baten orriak dira eta, orri horiei esker, orain dela 60 milioi urtetik gaur egunera arteko historia geologiko osoa berreraiki dezakegu. Amalurraren historian izan diren gertaera garrantzitsuenetako batzuk ulertzeko gakoak ematen dizkigute, besteak beste, dinosauroak desagertzea eragin zutenak.



Debako herrigunearen gainean **Santa Katalina** talaia natural zoragarria dago; Euskal kostaldearen zati handi ederra ikusten da han goitik. Begiratoki paregabea da; kostaldeko paisaia zoragarriek Geoparkearen barnealdeko paisaia karstikoarekin bat egiten dute bertan.

Biotopoko gorabehera tektoniko nagusia **Andutzeko faila** da. Bertan elkar ukitzen dute Behe Kretazikoko flysch beltzak eta Goi Kretazikoko kare-flysch gazteago eta gogorragoek. Diferentzia horrek itsaso-higaduraren kontrol hertsia eragiten du eta horren ondorioz sortu da **Aitzuri**ko itsas muturra. 130 metroko altuera duen hormatzar horren azpialdean Aitzuriko kobazuloak daude.



Itsasoak itsaslabarren oinarria etengabe higatzen du eta ondorioz harri-bloke handiak erortzen dira. Blokeak uharri txikietan zatitu eta itsaslabarren oinetan pilatzen dira, olatuen abrasio ahalmena areagotuz. Itsaslabarrek atzera egiten dute eta euren oinetan kantabriar kostaldeko marearteko zabalgune handienetakoa uzten digute agerian: **Mendata** eta **Sakoneta**ko marearteko zabalgunea.

Ez geratu Itxaspe, Mendatagaina, Talaia, Sakoneta, Portutxiki, Elorriaga eta Algorriko begiratokietara hurbildu gabe. Begiratoki horien bitartez zonaldeko interes puntu garrantzitsuenak ikusi eta bertako paisaia, kultura eta balio natural garrantzitsuenak ezagutuko dituzu. Ibilbidean zehar, altxor arkitektoniko txikiak ere aurkituko dituzu: flyscheko baselizak.



El GR-121 es un sendero que rodea todo el territorio de Gipuzkoa. Uno de los tramos más bellos y espectaculares es el que discurre entre las poblaciones de Deba y Zumaia, zona que fue declarada biotopo protegido y que pertenece al Geoparque mundial UNESCO de la Costa Vasca.

Este recorrido de 14 kilómetros coincide en parte con el del Camino de Santiago, y está cargado de grandes valores geológicos, naturales y paisajísticos, que esconden un singular tesoro natural: el **Flysch**.

Los estratos que forman los acantilados del flysch se formaron por decantación de sedimentos y pequeñas conchas de organismos marinos en el fondo de un mar profundo que dividía la Península Ibérica y el continente europeo. Estas capas se formaron en posición horizontal y posteriormente han sido plegadas y levantadas por la colisión Pirenaica. Son como páginas de un gran libro cuya lectura nos permite reconstruir el pasado a lo largo de más de 60 millones de años de historia geológica. Se trata de sucesivos estratos rocosos que, a causa de la erosión del mar, han quedado al descubierto y muestran las claves para comprender algunos de los eventos más significativos de la historia reciente de la Tierra, como la gran extinción de los dinosaurios.



Situada sobre Deba, **Santa Catalina** es una verdadera atalaya natural desde la que se divisa una gran parte de la costa vasca. Un mirador excepcional donde el maravilloso paisaje de la costa se une al paisaje cárstico del interior del Geoparque.

**La falla de Andutz** es el principal accidente tectónico de todo el biotopo y coloca al flysch negro del Cretácico Inferior en contacto con el flysch calcáreo más joven y más duro del Cretácico Superior. Esta diferencia de dureza produce un control muy importante en la erosión marina, dando lugar al cabo de **Aitzuri**. Un paredón de 130m de altura, bajo el cual se encuentran las cuevas de Aitzuri.

Pero el mar erosiona sin cesar la base de los acantilados provocando caídas de grandes bloques. Estos bloques se fragmentan en pequeños cantos rodados que se acumulan al pie de acantilado y aumentan el poder de erosión del oleaje. Los acantilados retroceden dejándonos a sus pies una de las mayores rasas mareales del Cantábrico: la rasa mareal de **Mendata** y **Sakoneta**.

No dejes de asomarte a los miradores de Itxaspe, Mendatagaina, Talaia, Sakoneta, Portutxiki, Elorriaga y Algorri. A través de ellos descubrirás los lugares de mayor interés del territorio, y obtener así una idea general de los paisajes y de los principales valores naturales y culturales de este entorno. A lo largo de este camino también encontrarás pequeñas joyas arquitectónicas: son las ermitas del flysch.

## Jarraibideak / Pautas a tener en cuenta

- **Txakurrak beti lotuta eraman.**
  Los perros deberán ir siempre atados.
- **Ez piztu surik eta ez bota zigarrorik.**
  No hagas fuego ni abandones cigarros.
- **Ez eraman animalia, landare, mineral edo fosilik. Paisaiaren osagarriak dira.**
  No recolectes animales, plantas, minerales o fósiles. Forman parte del paisaje.
- **Abeltzaintza eremu batean zaude. Bidean aurkitutako langa eta hesiak itxita utzi. Errespetatu gure nekazarien lana.**
  Te encuentras en una zona de uso ganadero. Cierra las puertas y barreras que encuentres por el camino. Respeta el trabajo de nuestros baserritarras.
- **Mendi zidorretatik bakarrik ibili. Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
  Camina únicamente por los senderos acondicionados. Intenta no ir nunca solo al monte.
- **Ez bota edo utzi zaborrik.**
  No abandones ni entierres la basura.
- **Debekatuta dago kanpatzea.**
  La acampada no está permitida.

((112))
SOS DEIAK

Informazio gehiago:

Para más información:


Debako Udala
Geoparkea Euskal Kostaldea - Costa Vasca
EUSKADI BASQUE COUNTRY
EXPLORE SANSEBASTIAN REGION
Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura · Costa Vasca Geoparque mundial de la UNESCO
Hezkuntza Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea · Euskal Kostaldea UNESCOren munduko Geoparkea
Egilea/Realiza: Kaioa (943 19 20 30 - Deba)


